



SANTIXABELAK
2022
gehigarri berezia



aldizkariak
ESKU-ORRIAK
liburuak
katalogoak
AGENDA
kartelak
EGUTEGIAK
papeleria
koadernoak
LOGOTIPOAK



INPRENTA
offset eta digitala

**DISEINU
GRAFIKOA**

**DISEINU
EDITORIALA**

**GORA
SAN
TIXA
BEL
AK**

antza

Zirkuitu Ibilbidea 2 · 20160 LASARTE-ORIA · Tel. 943 370 738 · info@antza.eus · www.antza.eus

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

**Bidaiatu
Konpainia
onean.**



Tel.: +34 943 36 32 90
www.autocares-aizpurua.es

AUTOBUSAK
Aizpurua

EMANDAKOA JASOTZEKO MEREZIMENDUA

Hunkituta, ilusio eta ohore handiz jaso du Usurbilgo Odol Emaileen Elkartek hiru urteren ostean bueltan datozen herriko festei hasiera emateko eskaini zaien aukera. Are gehiago noski, herriaren erabakiz eta merezimendu osoz, Jai Batzordearen eskutik herritarrek hautagaiak proposatzeko egitimo deialditik datorrela jakinda. Ekainaren 29an, 19:00etan udaletxeko balkoitik emango diete hasiera Santixabelei.

Gogoan izango dituzte odol emaien elkartearen sortzaileak. Egiten zuten lana goraiatu digute. “Lantegiz lantegi ibiltzen ziren laguntza eskatzen”. Orduetik 50 urte inguru igaro dira. Antolakuntzan ibili direnak, eta emaileak dituzte uneotan gogoan. “Horiek merezi dute guztia”, nabarmendu digute, Agustina Aristik, Marisol Unanuek, Gero Tenak eta Mari Jose Kortak. Asko izan dira emaileak. Garai batean 60tik gora ere izaten ziren. Egun berrogei inguru dira Usurbilen. Elkartetik NOAUA!ri aipatu diotenez, biztanleria kopurua hartuta udalerrri honetan 48 emaile izateko erroka jarria dute. “Ez gabilta gaizki”, diote, baina gehiago behar dituzte. “Odol gehiago behar da”.



Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteko kideek botako dute jai hasierako suziria.

Errelebo beharrean

Datorren saioa uztailearen 11n izango da. Eta agian nobedadeekin dator gainera. Osasun krisialdiagatik ikastolara lekuz aldatutako hitzordua berriz osasun-etxera itzultzekotan baitira. “Anbulatorioan baimena eman digute eta orain zentralekoekin hizketan ari gara ea posible izango ote den”. Emaileek biziki eskertu izan duten ohitura zahar bat ere berreskuratu zuten baita maiatzaren 2ko emanaldian. “Azkeneko txandan tortilak ematen hasi ginen. Denak gustura”, nabarmendu digute.

Odola emateko txanda hartu beharrak mantenduko dutela dirudi. Gogoan izan, odola ematen dutenei, emanaldi berri-rako eguna eta ordua aurrez jakinarazten zaie. Estreinakoz eman nahi dutenek odol emate egunean bertan, goizez 943 007 884 telefono zenbakira deitu behar izaten dute.

Emaileak behar dituzte aipatu moduan, baita erreleboa ere taldean, emanaldiak antolatu eta Udalarekin tramitazio lanak bideratzeko. “Ez da lan handia”, baina egin beharrak izaten dira noski.

“PLASMA ESKURATZEKO ODOL ASKO BEHAR DA”

50 urteren bueltako ibilbidea jorratua du Usurbilen odol emaien elkartek. Mende erdi honetan bilakaera argia izan du baita odol emateko moduak ere. “Hasieran ohatiletan jartzen zituzten emaileak eta hartzaileak. Zuzenean ematen zen odola batetik bestera. Gero beirazko botilak izaten ziren”. Prebentzio lan handia egiten dute egun. Odola eman aurretik norbere osasun egoera zertan den ikusteko “tanta bat ateratzen dute”. Bistan denez, “segurtasun aldetik izugarri aurreratu da”, nabarmendu dute Usurbilgo

odol emaien elkartetik.

Eta etorkizunari begira, indarra hartuko duen berrikuntza bat aipatu digute. Dagoeneko jakinarazten hasiak dira. Plasmaz ari dira. Egun, “odolari plasma kendu egiten zaio, plasma aparte hartzen da. Diotenez, plasma geroz eta gehiago behar da ebakuntzetan, odola baino gehiago baliatzen dute. Horregatik, orain jendeari zuzenean plasma ematea eskatzen hasiak dira”.

Momentuz ordea, plasma ezin da herrietan izaten den odol emate saioetan

eskaini. “Zentralera joan behar da. Kontua da, odola atera eta sartu egiten dutela eta bidean plasma kendu. Denbora gehiago behar izaten da”. Eta noski, plasma eskuratzeko “odol asko behar da”. Halere, aipatu dutenez, “orain badaude moduak odola kendu gabe plasma bakarrik kentzekoa”. Momentuz, Donostian bakarrik eman daiteke plasma, baina pentsatzekoa da, eta emaien elkartekoak ere iritzi horretakoak dira, plasma eskuratzeko “denborarekin herriz herri ibiltzea joatea ere lortuko dutela”.

TXOSNAGUNEAN ERE TXUPINAZOA EGINGO DA

Udaletxeko balkoikoa jaurti eta gutxira, ekainaren 29an asteazkena 20:30ean irekiko da txosnagunea, gazte txupinazoarekin; irekiera girotua izango da, topa eta sorpresekin.

“Oraina guria denk!” aldarripean, txosnagunean eskuragarri izango diren zapiekin eta Nafarroako inauterietako nahiz maskaraden inguruko jantziekin girotua agertzeko deia egin dute. Era honetan, “gazte mugimendua zer den erakutsi nahi zaio herriari, jendea gazte mugimenduko kide sentiaraztea, gure ekintzetan parte hartzea”, antolatzaileek NOAUA!ri adierazi diotenez. Gazte sentitzen den ororekin talde argazki handi bat aterata ekin nahi diete ate joka ditugun Usurbilgo festei.



Ekainaren 29an asteazkena, arratsaldeko 20:30ean botako dute txupinazoa txosnagunean.

SANTIXABELEK

SANTIXABELEKO MENUA

Urdaiazpiko iberikoa
Ahuntz gazta eta intxaur entsalada
Otarraixkak plantxan

AUKERAN:
Haragiak edo Arrainak

Brownia izozkiarekin
Edaria aparte

27,90€

ekainak 29 - uztaillak 3

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

PUNTAPAN 8. USURBIL 945 36 11 31 ARTZABALJATETXEA.EUS

GOLDWELL
ELUMEN

Ondo pasa Santixabeletan!

ile apaindegi

mistoa

Kolorazioetan teknika berriak eta iraunkorrak

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951

Iturgintza

Ondo pasa festetan!!!

- BEROKUNTZA • GASA
- AIRE EGOKITUA
- ZORU BERO-EMAILEA
- ITURGINTZA
- ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

600 024 825

info@lnakilturgintza.com--www.lnakilturgintza.com

mur
errotuluak

Ondo pasa Santixabeletan!!

Ibilgailuak - Erakustokiak - Lonak
Argidunak - Inpresio digitala

943 36 60 21 - USURBIL
puntapax kalea 6 A-B

info@murerrotuluak.com - www.murerrotuluak.com

ZENDOIAENEA
taberna

Ondo pasa Santixabeletan!



NAGUSIA 35, USURBIL

ARITZ ARANBURU: “JAIRIK HOBERENAK GURETIK BIZITZEN DITUGUNAK DIRA”

Aritz Aranburu aginagarrarena da, lehiaketa bidez Jai Batzordeak aurtengo egitaraurako hautatu duen diseinua. Udalak etxez etxe banatuko du egitaraua egunotan.

NOAUA! Zerk animatu zaitu parte hartzera?

Aritz Aranburu: Sare sozialetan pare bat aldiz agertu zitzaidan berria mugikorrean nembilela eta bigarrean esan nuen nire baitan: “oraintxe gogoz nagok eta egin egingo diat”.

Zerk inspiratu zaitu egitarau honen diseinua sortzerakoan?

Erabakia hartu eta diseinua egin nuenean ordenagailuaren aurrean nintzen doktoretza tesiko artikuluzientifiko bat idazten eta Berri Txarrak entzuten. Hortaz, gehiagoren goen musika entzutera lanera baino, egia esan. “Denbora da Poligrafo Bakarra” diskoa entzuten nembilela eta esan nion nire buruari ea collage eta surrealismo puntu bat zuen diseinu bat egitera animatuko ote nintzen, diskoak bere diseinuan bezala. Ez nuen inoiz horrelako diseinurik egin eta interneten bilatu beharreko irudi kopuruak batera erakartzeko ez ninduen arren (copyright-ak dirrela eta abar ez da erraza izaten) horrela hasi nintzen lanean.

Zer islatu nahi izan duzu?

Gaztetxo zoriontsuak, jaiez eklipsatuak eta



“Betiko festak bueltan ditugula islatu nahi izan dut diseinu lanean”

“Ez nau beldurtzen originaltasunak eta ez nau estresatzen gauza berritzaileak ez egiteak, bai ordea funtzionala ez izateak”.

egun argiko parranderoak eta gaueko saguzarrak. Betiko festak bueltan ditugula.

Nolakoa izaten da zure sortze prozesua?

Idea edo erronka batetik hasten da dena. Sarean nabigatuz hirugarrenen lan ezberdinak biltzen ditut eta ondoren horien artean aukeraketa bat egiten dut funtzionalitatea eta estetika kontuan izanda. Honela, zer ez dudana nahi ikusten dut eta ideiak argitzen ditut. Ondoren, lortu nahi dudana garbi(ago) izanda, probatzen joaten naiz maketazio ezberdinak eginez eta hasierako

helburua hoberen betetzen duela irizten dudana aukeratu. Azkenaldian, nire buruari denbora mugatua ematen diot, buelta gehiegi ematea ez da eta ona.

Ezin aipatu gabe utzi, dena ez dagoela diseinatzailearen esku. Inprentaz ere jakin behar da eta harreman ona edukitzea oso garrantzitsua da, beraiek duten jakintzatik ikasteko. Ni ez naiz diseinatzaile grafikoa eta Antza Komunikazio Grafikokoekin asko ikasi dut; ebaketa markak, koloreak gestionatzen, tintak, zerk igotzen dituen kostuak...

“USTE DUT ASKO GOZATUKO DITUDALA AURTENGO JAIK”

NOAUA! Nola izan originala?

Aritz Aranburu: Ez nau beldurtzen originaltasunak eta ez nau estresatzen gauza berritzaileak ez egiteak, bai ordea funtzionala ez izateak.

Nola hartzea nahiko zenuke egitaraua eskuartean?

Norberak nahi duen moduan interpretatu eta har dezala programa. Jairik hoberenak guretik bizitzen ditugunak dira.

Nola biziko dituzu bueltan datozen jaiak?

Bertsio gaua eta Anje Duhalderen kontzertura joateko irrikaz nago. Nik uste asko gozatuko ditudala aurtengo jaiak!

TXIRIBOGA

TABERNA

Ondo pasa
Santixabeletan!

SANTIXABEL FESTETAN:

(Ostiral gauetik igande eguerdira)

MENU BEREZIAK AUKERAN:

41€

43€

45€

SAN JUAN BEZPERAN...
OGITARTEKOAK

943 21 88 40

IRAZU KALEA 6, USURBIL

Rafa

iturgindegia

ONDO PASA
SANTIXABELAKI!



- Iturgin lan orokorrak
- Dutzako manparak
- Konfidantzazko gremlak
- Komuneko altzariak

Bordaberri kalea 1, 1 behea • ☎ 943 36 80 04

Ondo pasa
Santixabeletan!

Bekaineko Desing-Style
Betileen lifting-a edo/ eta iraunkorra

INTZA

ILEA PAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

**UDARAKO AZALA PRESTATU
GURE TRATAMENDUEKIN:**

**SENTIKORRA
DETOX
ANTIAGING
ARGIZTATU
MADEROTERAPIA**

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN ESTILISMOA ETA ESTETIKA LANTZEN DITUGU

Eguerdian irekita! Nagusia 8, Usurbil - Tel: 943 36 36 41

UZTAILAREN 3AN, USURBILGO RUMBA ETA BACHATA DANTZA TALDEAREN SAIOA

Santixabeletan urtero izan ohi dira berrikuntzak eta aurtengoetan ere ez da gutxiago izango. Gure Pakea Elkarteko kideek dantzaldia proposatu dute jaien azken egunerako, hilaren 3rako. Aspaldian buruan zerabilkiten ekimena aurten plazaratuko dute. Marcelo Gutierrez eta Emilia Crespo Gure Pakeako arduradunekin izan da NOAUA!.

NOAUA! Dantzaldia proposatu duzue festen azken egunerako. Dantza ikastaroren baten ondotik datorren proposamena al da?

Marcelo Gutierrez: Jende askok esaten zigun dantza ikastaroren bat edo egingo zukeela eta gure asmoa zen hilean behin edo tailer moduko bat antolatzea. Ideia horri jarraiki DJren bat kontratatzea pentsatu genuen eta dantza egiten irakatsiko zigun norbait bilatu nahi genuen, baina oso garestia zela konturatu ginen segituan. Zailtasun ugari izango genituela ikusita, klase bat proposatzea aukera hobea izan zitekeela iruditu zitzaigun eta horri heldu genion.

Emilia Crespo: Adin guztietako jendea erakartzea izan da gure ideia. Ez genuen dantza tailer bat proposatu nahi jubila-tuontzat bakarrik, baizik eta helduak zein gazteagoak ere bilduko zituen zer-



“Astean behin elkartzen gara Udarregi ikastolako patioan”

Gure Pakea elkarteko kideek antolatu dute uztailaren 3ko dantzaldia. Argazkia, artxibokoa. Egilea: gitb.eus

bait egin nahi genuen.

Noiz izaten dituzue entseguak?

E.C: Astean behin elkartzen gara Udarregi Ikastolako patioan. Irakaslea badugu eta musika aparatua ere bai. Duela aste batzuk hasi ginen festetarako entsegu gehiago egiten. Orain arte 20 bat ordu egin ditugu eta gutxinaka gauzatxoak ikasten

ari gara.

M.G: Kanpotik ikusita badirudi nahiko ondo moldatzen dela jendea eta entsegu gutxi izan badira ere, maila polita lortzen ari dira. Hilabetez oporretan egon naiz eta itzuleran hobekuntza ederra egin zuten. Zeretik hasi eta gauza ederrak lortzen ari dira. Oso gustura daude denak eta gogotsu dabilta.

“TALDEKO IA DENAK EMAKUMEZKOAK GARA”

Zein dantza estilo lantzen dituzue?

E.C: Bachata, tangoa, chachacha, pasodobleak eta ijitoen dantzak egiten ditugu, batez ere. Bakarkakoan aritzen gara, modu horretara entseguetarako ez daukagu derrigorrean bikote batekin joan beharrik.

Emakume adina gizon ibiltzen al da?

E.C: Gehiengo zabal bat emakumezkoak dira. Hiru edo lau gizon baino ez daude taldean, eta beraz, ia-ia denak emakumeak gara. 60 bat urte izango da taldearen batez bestekoa, gazteenek 50 bat urte dituztela eta zaharrenek 70 in-

guru.

M.G: Gizonezkooi lotsa gehiago ematen digute horrelako gauzek, batez ere, inoiz egin ez badugu. Emakumeak gehiago animatzen dira gauza berriak probatzera eta orokorrean gehiago mugitzen dira gisa honetako jardueretan.

“ONDO EDO GAIZKI DANTZATU, ONDO PASATZEA DA HELBURUA”

NOAUA! Lehen aldia izango da plazara ateratzen zaretena?

Emilia Crespo: Bai, ni taldean nabil eta, jakina, festetan ere bertan izango naiz. Azken hilabeteotan ikasi duguna erakutsi eta saio berezi bat izango da guretzat. Ondo edo gaizki dantzatu, ondo pasatzea da helburua.

Marcelo Gutierrez: Ni joan egingo naiz, baina ez dut uste asko dantzatuko dudarik. Erakustaldia kanpotik ikusiko dut.

Dantzaldia uztailearen 3an egingo da, Artzabalgo frontoian.

E.C: Bai, leku nahikoa badago dantzaldi polit bat egiteko. Eguraldi txarra egingo balu, ez daukagu beste aukerarik, herriko frontoian pilota partida baitago ordu horretan. Beraz, eguraldi ona egitea espero dugu.

M.G: Arratsaldeko seietatik aurrera izango da Artzabalgo frontoian eta nahi duen ororentzat irekita egongo da. Beterie kontuan izan behar da taldekoek izango dutela lehentasuna jende gehiegi egongo balitz ere, baina printzipioz ez dugu inolako arazorik aurreikusten.

Ikasturtean zehar norbaitek taldean izena eman nahiko balu zer egin beharko luke?

M.G: Gure Pakeara hurbildu eta guri he-



“Leku nahikoa badago dantzaldi polit bat egiteko Artzabalen”

Uztailearen 3ko dantzaldia Artzabalen ospatuko da, arratsaldeko 18:00etan hasita. “Nahi duen ororentzat irekita egongo da”.

larazi baino ez du egin behar. Orain 40 pertsonako taldea daukagu eta jende gehiago, agian, gehiegi izan daiteke. Hau ez diogu guk horrela izatea nahi dugulako, baizik eta patioa txiki gera daitekeelako. Izen-emate handia egongo balitz, irailetik aurrera bi talde egitea azter genezake. Itxaron zerrenda bat sortuko genuke eta

behar balitz, 25 bat pertsonako bi talde egingo genituzke.

E.C: Hilabete koeta ez da batere altua, 8 euro baino ez ditugu ordaintzen hilean klaseen truk. Hilabete batzuek lau aste izaten dituzte eta beste batzuek bost, baina batez beste, klaseko bi euro ordaintzen ditugu.

“KAMISETA BANA EMANGO DIEGU PARTEHARTZAILEEI”

Zenbat pertsona aritzen dira dantza-saioetan?

M.G: Otsailean hasi ziren lehen entseguak eta horrela hasi zen taldea osatzen, eta orain, hilabete batzuk pasa ostean, 40 pertsona daude taldean.

Oso erantzun ona izan du dantza ikastaroak eta honekin jarraitu nahi dugu hemendik aurrera ere. Bakoi-tzak bere ideiak gainontzekoekin partekatzen ditu, eta modu horretara, jendearen gogo eta beharren arabera molda dezakegu taldea.


E.C: Ia talde osoak hartuko dugu parte jaietako dantzaldian. Sorpresa gehiago ere baditugu, kamiseta bana emango baitiegu partehartzaileei. Taldearentzat adina kamiseta baditugu eta kopia gehiago ere egingo ditugu parte hartu nahi dutenentzat ere.

ERASORIK GABEKO JAIEN ALDE

Festarako gogoz bai baina denontzako segurua izango den jaigunea izatea nahi dute Santixabelak Usurbilgo gazte mugimenduak. Egitarauan jasoa duten moduan, “ez da eraso arrazista, sexista ezta homofoborik onartuko”. Hala izan dadin zaintza lan hori egitekoak dira txosnagunean; baina argi dute, denon ardua da jai seguruak izatea denontzat.

“Ez izan konplize”

Erasoen aurrean, txosnaguneko kideengana jotzea eskatu dute. “Ez izan konplize, zerbait ikusiz gero laguntza eta babesa eskaini”. Gai hauen inguruan formazio saioa jasotzekoak dira egunotan Sortzen-en eskutik. Haiekin landu zuten 2019an nola jokatu zehazten duen eta eguneratu zein plazaratu asmo duten protokoloa ere.



Sagardo Egunean bezala, eraso sexisten aurkako puntu moreak jarriko dira ostiralean eta larunbatean.

Ondo pasa Santixabeletan!

Atallu
AUTOAK

Motorra
Balaztak
Mekanika
Esekidurak
IAT-aurrekoa
Pneumatikoak
Ihes Kanalizazioak
Injekzio Elektronikoa
Berehalako Zerbitzua

EuroTaller

Atallu Industrialdea, Oria kalea 4 / Usurbil 20170 / 943 37 74 78 / atalluautoak@gmail.com

G15 GIPUZKOA
HIGIEZINA
ELKARTEA

Ondo pasa jailetan!

G15 USURBIL
HIGIEZINA | INMOBILIARIA

SALEROSKETA & ALOKAIKURAK
Zugandik GERTU behar duzun GUZTIRAKO

688 739 733 info@g15usurbil.eus
Etxebeste Kalea 15 - USURBIL



EROSKI
city

*Santixabel zoriontsuak opa
dizkizuegu!*

Kale Nagusia 10, USURBIL
Tel. 943 36 11 82



ARRANDEGIA
PELLO



ASTEARTETIK-LARUNBATERA 8:30-13:30

650 31 31 91 PUNTAPAX 7, USURBIL

Uraitz, s.l.

*Ondo pasa
Santixabeletan!!*



**Igeltseritza
Orokorra**

Telefona

**693 05 93 92
943 56 66 40**

uraitz@uraitz.com
Geltoki Kalea 15, URAITZ OFIZINA, LASARTE-ORIA

“PROPOSAMEN BERRI BAT EGIN NAHI GENUEN, HERRITIK ETA HERRIARENTZAT SORTUTAKOA”

Uztailean sartzearekin bat, herri-kirolak izango dira Dema plaza inguruan. Orain arteko herri kirol erakustaldiaren ordez, ostiral arratsaldean (uztailak 1) herritarren arteko erronka proposatu dute aurten. Antolatzailerak taldearekin izan da NOAUA! eta hainbat azalpen eskaini dizkigute.

NOAUA! Aurten, ostiralerako aurreikusituzue herri kirolak.

Pako Agudo: Hasi ginenean festak antolatzen, jaiak antolatzeko eta ulertzeko moduari buelta handi bat eman genion. Kultur Birak utzitako ondorengotza izan da planteamendu hau. Gauzak aldatzeko nahia zegoen, orokorrean. Herri-kirolei heltzean, eguna baino formatua aldatzea erabaki genuen. Proposamen berri bat nahi genuen herritik eta herriarentzat sortutakoa. Egokiagoa iruditu zitzaigun ostiralean egitea herritarrek disfrutatu eta jai egunak izateko hurrengo egunetan ere. Zer-gatik beti igandetan? Nik uste giro polita sortuko dela ostiral arratsaldean.

Nola aukeratu dituzue parte hartuko duten herritarrak?



“Herri-kirolen eskaintza ezberdina izango da aurten”

Uztailaren 1ean ostirala, herritarrek osatutako bi talde arituko dira lehian. Argazkian, herri-kirolen ekitaldia antolatzen aritu diren hiru lagun: Haritz Esnal, Lur Errekondo eta Pako Agudo.

PA: Lantalde txikian hasi ginen herri-kirolak antolatzen. Herritar egokiak nahi genituen honetarako, eta pixkanaka batzuen eta besteen ateetara deitu genuen. Hala, Lur Errekondo eta Ane Zinkunegi herri-jasotzaileei proposamena luzatu

genien, eta hortik aurrera, pixkanaka modalitate bakoitzerako jende egokia hautatzen hasi ginen. Sei proba hautatu ditugu: giza-proba, txingak, harri-jasotzea, trontza, korrika eta aizkora. Giro ederra sortuko delakoan gaude.

“EMAKUME ZEIN GIZONEN ARTEAN OSATUTAKO TALDEAK EGITEA ZEN GURE HELBURUA”

NOAUA! Emakumeak ere badaude tar-tean. Harri-jasotzaile emakumeak orain hasi dira ezagun egiten eta herrian bi baditugu.

Haritz Esnal: Gure helburuetako bat emakume eta gizonen artean osatutako taldeak egitea zen.

Trontzan, adibidez, taldeko bi per-

tsonek hartzen dutenez parte, bikote mistoak sortu nahi izan ditugu. Korrikalari neskak lortzea ere nahikoa kosta zaigu. Herrian emakumezko korrikalari asko daude, baina jendea ez da animatzen.

Txingetan, esaterako, zailagoa da neskak animatzea eta harri-jasotzai-

le emakumezkoak izatea ere duela pare bat urte ezinezkoa izan zitekeen, baina orain horretan dabilzian bi baditugu.

Kontua probatzea da eta behin probatuta, erabakitzea gustatzen zaigun edo ez. Aberasgarria izan daiteke.



ATEZAIN EDO BIDEOATEZAIN DIGITALAK
OBRARIK GABE!



6855 zenb. telekomunikabide erregistroan
elkano kalea 13 HERNANI 943 55 33 99 - 629 12 13 55

Bixen
ileapaindegia

Depilazioa

Hilearen
erorketaren aurkako
tratamendua

Ondo pasa
SANTIXABELETAN!

Nagusia 10, Usurbil - 943 37 28 44

TXAPELDUN

JATETXEA

35€

- Etxeko aperitiboa
- Txipiroizko entsalada epela
- Onddo eta parmesano rissotoa aukeran:
- Behi azpizuna foie saltsarekin edo
- Xapua labean amarikar saltsatekin eta ganbazko brotxeta

- Azkenburuak:
- Gazta tarta
- Coulant izokia eta natilekin
- Izozki ugariak



SANTIXABELETAN...

TXAPELA BURUAN
TA JATEKO MODUAN

MUNA LURRA KALEA 2, 20170 USURBIL, GIPIZKOA
943 21 34 03 - @txapedun_jatebxa

- * Impermeabilizazioak
- * Isolamendu termikoa
- * Teilatua
- * Mantenimendua
- * Fatxadak
- * Irisgarritasuna



ERAIKINAK

BIRGAITZEKO ETA

HOBEKUNTZA

ENERGETIKOA

LORTZEKO

SOLUZIOAK

SOLUZIOAK ZURE ESKU, HEMEN, USURBIL

Zubiaurrenea Kalea 3, 20170, Usurbil
Tlf: 625077916 | info@bonex.es

“ERRELEBOKA OSATUTAKO LEHIAKETA IZANGO DA”

NOAUA! Sei zatitan banatutako zirkuitua izango da.

Haritz Esnal: Zirkuitu hori laupabost aldiz egitea da ideia. Oraindik zehazteke daukagu zenbat izango diren.

Pako Agudo: Behin zirkuitua bukatuta ez da erakustaldirik edo antzekorik izango. Bi talde izango dira, batzuk gorriak eta besteak urdinak. Modu horretara, zirkuitua osatu beharko da eta lehenengo osatzen duen taldeak irabaziko du.

Lur Errekondo: Erreleboka osatutako lehiaketa bat izango da. Hori da dakarkigun proposamena.

Zenbat denborako saioa espero duzue?

H.E: Ordubete inguruko saioa espero dugu. Kirolariak lehenengo pixka bat berotu beharko dute, aurkezlearen hitzak entzun, lanean hasi eta amaierako agurrekin eta abar, denera ordubeteko buelta horretan ibiliko gara.

P.A: Eguraldia ere ikusi beharko da. Euria izanez gero, atzeratzeko denbora pixkat bat badugu. Euri pixka batekin ere egin liteke, baina harri-jasotzaileentzat izan daiteke arazorik handiena. Nolabait egingo genuke aurrera eraman ahal izateko, baina



Argazkian, Usurbil Herri Kirol Taldekoak iazko urrian eginiko erakustaldian.

onena horretan ez pentsatzea da.

Kirol erronka honek etorkizunean gehiago ere ekarriko ditu?

P.A: Irabazten duena Usurbilgo lehen talde garailea izango da, eta horrek ohorea emango die. Hala ere, garrantzitsuena jendeari berrikuntza hau plazaratzea da eta balorazio positiboa egingo dugulakoan gaude.

H.E: Agian, San Praixkuetan dabiltzate-

nek deituko digute erronka jotzeko. Nork daki.

L.E: Formatu berri honek freskotasuna ematen die herri-kirolei eta ikusi beharko da jendeak nola erantzuten duen. Jendea erakar dezakeen formatua da, denak herritarrak izanda, lagunak eta senitartekoak ere etorriko dira ikustera, eta herri-kiro-lak maite dituztenak ere beti bezala, berdin-berdin hurbilduko dira plazara. Belau-naldien arteko topagune izan daiteke.


“GUK EZ DUGU IDI-DEMAREN AURKA EGIN NAHI, BESTE PROPOSAMEN BAT LUZATU NAHI DUGU ETA IKUSI EA HERRITARREK GUSTUKO DUTEN”

NOAUA! Aurten ez dago idi-demarik izango. Zer esan dezakezue?

Pako Agudo: Guk formatu honen aldeko apustua egin dugu eta idi-dema kanpo utzi dugu. Erabakiak hartu egin behar dira eta idi-demaren aldeko apustua eginez gero, aurtengo prestatu dugun hau ezingo litzateke egin aurrekontua dela medio. Ikuslego zabalgoa nahi ge-

nuen aurtengo eta horretarako zerbait berritzailea egin beharra dago. Animalien gaia pil-pilean dago azken urteetan, eta guk herri-kiroletatik kanpo utzi baditugu ere, sokamuturra egingo da. Guk ez dugu idi-demaren aurka egin nahi, baizik eta beste proposamen bat luzatu eta ikusi ea herritarrek gustuko duten.

Haritz Esnal: Kultur Biraren filosofiak jaiak herritarrek eta herritarrentzat egitea da eta dirua herritarren artean banatzea iruditu zaigu egokiena. Trontzak Aginagako Jai Batzordeak utzi dizkigu, harriak ere herritarrek utzi dizkigute eta kamisetak ere herritarrek egingo dituzte. Auzolanen egingandako zerbait da. Hori nahi genuen.



Patrienea Jatetxea
Bazkariak, astelehenetik igandera
Afariak, ostirala eta larunbata

Patri

kale nagusia 14. **USURBIL**
t 943 362 725 - 688 690 361


Estantkoa Estantkoa

Aguirrezabal Estantkoa


Ondo pasa Santixabeletan!

kale Nagusia, 27.
© 943 361 110

MIKEL ARRANDEGIA




MIKEL ARRANDEGIA



Ondo pasa Santixabelak!

San Inazio, 1 • © 943 366 356



Ondo pasa Santixabeletan!

BENTA TABERNA

Pintxoak eta giro ona!

BELAUNALDI EZBERDINEN ARTEAN EGINIKO GIRLANDEK EDERTUKO DUTE KALEA

Udarregi Ikastolako DBH2ko ikasleek ekimen berria jarri zuten martxan ikasturtearen hasieran aurtengo Santixabeletarako oihalezko girlandak sortzeko. Urteroko plastikozko girlanda gorriak iraganeko elementu bilakatu, eta birziklatutako materialez egindakoak izango ditu Usurbilek aurrerantzean.

Hondakinak murriztu eta birziklapena sustatzeko Balore Etikoak arloan garatu dute proiektu hau ikasleek, eta ez hori bakarrik, belaunaldien arteko harremana ere sustatzea izan dute helburu. Izan ere, Udarregi Ikastolako ikasleek gain, herriko jubilatutako taldeek ere parte hartu dute proiektuan; Gure Pakea Elkarteko kideek, bai eta Santueneako eta Aginagako jubilatutako taldeek ere. “Proiektua azaltzera joan ginen hiru lagun eta jubilatuei asko gustatu zitzaizen ideia. Laguntzeko prest agertu ziren, eta haiek arduratu dira girlandak behar bezala josteaz”, adierazi dute ikasleek. Haien laguntzarekin, garaiz amaitu dute lana eta oso gustura agertu dira azken emaitzarekin.

Ekainaren 27an ipiniko dituzte
Ekainaren 27an zintzilikatuko dituzte 30



“Hilabete askotan zehar eskuratutako materialarekin egin dituzte”

Maindireekin, mahai oihalekin eta bestelako oihalekin osatutako girlandak ipiniko dituzte kaleetan.

metroko zortzi sokak Dema Plaza gainean. “Nahikoa egin ditugu Dema Plaza jantzi eta plastikozko girlanda zaharren beharrik ez izateko”, jakinarazi du Izaskun de Miguel irakasleak. Maindireekin,

mahai oihalekin eta bestelako oihalekin osatutako girlandak dira, kolore ezberdinetakoak. Hilabete askotan zehar lortutako materiala nahikoa izan da proiektua aurrera eramateko.

DEMA PLAZA, KOLOREZ JANTZITA

Udalarekin harremanetan jarri ziren proiektua hasi bezain pronto, hauek baimena eska ziezaieten bizilagunei sokak zintzilikatu ahal izateko. Baimen horiek lortuta, lanean hasi ziren azaro-

rako eta azken emaitza ikusgai egongo da Santixabel jaietan. “Proiektua polita izan da, baina luze egin zaigu prozesua. Datorren urtean, beste ideien bat izan beharko dute, prozesu labu-

rragoa izango duena”, esan dute ikasleek. Irakasleak ere ados agertu dira ideia horrekin, eta datorren urtean, hiru hilabete zehar egiteko moduko proiektua egingo dute.

URDAINTZI

eraikuntzak



649 43 54 75 / 76
943 36 72 64

ERAIKUNTZAK
OBRAK
BERRITZE LANAK

IT-ak egiten
dira

urdaintzi@euskalnet.net

*Ondo pasa
Santixabeletan!*

Antxeta

TABERNA



proba itzazu gure
**HANBURGESA
BEREZIAK!**
eramateko ere!!

619 409 198

egunero irekitzen dugu!

•eguneko menua (astelehenetik-larunbatera)
•jaiegunetan: asteburuko menua
•ogitartekoak, pintxoak, razioak,
oilasko erreak, hanburgesak, paellak
eramateko ere prestatzen dugu!

Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 71 38 03

txirriStra

TABERNA



Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Pintxoak
Etxeko hanburgesak

Ondo pasa Santixabeletan

Kontseju zaharra, Telf: 943 36 04 66

FRONTOIKO TXAPELKETEN AMAIERA

Aspaldi ikusi gabeko adin tarte zabaleko gazteak ikusi ditugu azken asteotan frontoian kirol jardueraz lagun artean gozatzen. Bai pala txapelketan, baita Aztarricup ekimenen ere. Biak ala biak festei begira antolatutakoak eta amaiera Santixabeletan izango dutenak.

Hogeitik gora bikote batu dituen pala txapelketa mistoaren azken partidak ekainaren 29an jokatu dira, pala egokituko erakustaldiaren ostean. Bestelako kirol jarduerak, hockeya tartean plazaratu duen Aztarricup-eko azken partidak iragan astean jokatu ziren. Sari banaketa uztailearen 1eko Gazte Eguneko bazkalostean izango da; bingo musikatua eta gero.



Pala zein hockey partidak jokatu dira azken asteotan frontoian.

**Josue
Igeltseritza**

 606 37 21 05

Ondo pasa
Santixabeletan!!!

Fatxaden estaldurak

Estalkien berriztatzeak

Barruko berrikuntzak

Gremioen koordinaketa

Igeltseritza orokorra

Ondo pasa festetan!

G Auto Guria s.l



Auto Konponketa

Pre I.T.V.

Marka guztiak

KONFIDANTZAZKO TAILERRA!

© 943 363 298 Zelai-haundi 11, Osinalde Pol. USURBIL

Elexpe

Ukaparandegia



Ondo pasa
Santixabeletan

Betileen tintaketa
eta permanentea

Zutikako eta
etzandako
Solariuma

Muna Lurra 12 • © 943 370 462

Ondo pasa
Santixabeletan!!



ERRAUSKETARIK EZ
LURRA BASERRIA HERRIA
BIZIRIK

ALKARTASUNA

Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba

Atallu industrialdea 26 943 36 11 14 alkartasuna@usurbil.com www.alkartasuna.eus

Ekainak 29, asteazkena

- 16:00 Pala-txapelketa: kirol egokituen erakustaldia eta binakako finala.
- 18:00 Jaixkipe txaranga, frontoitik abiatua.
- 19:00 Txupinazoa eta ikurrinaren igoera. Ondoren, erraldoi eta buruhandiak.
- 20:30 Gazte txupinazoa eta topa txosnetan.
- 23:30 Ameba, Viafara eta Tzar txosnetan.

Ekainak 30, osteguna

- 06:00 Oilasko-biltzaileen gosaria eta irteera, txosnetatik abiatuta.
- 11:00 Gaztetzozentako III. Kolore Festa.
- 14:00 Oilasko-biltzaileen itzulera eta bazkaria. Ondoren, jolasak.
- 17:00 Euskal preso eta iheslarien aldeko trikipoteoa, txosnetatik abiatuta.
- 18:00 Orbeldi dantza taldearen saioa.
- 19:00 Buruhandiak.
- 19:30 Bertsolariak frontoian: Joanes Illarregi, Maialen Lujanbio, Nerea Ibarzabal, Unai Iturriaga. Gai jartzailea, Amaia Agirre.
- 20:30 Diskofesta eta karaokea Gaztelekuan, 12-16 urtekoentzat.
- 22:30 Laket taldea frontoian.
- 00:30 Bertasio gaua txosnetan.

Uztailak 1, ostirala

- 09:45 Haur eta gazteei harrera, udal-txean. Zatoz koadrodun zapi urdinarekin!
- 10:00-14:30 Jolas-parkea, frontoian.
- 10:00-12:00 Ginkana, LH1etik LH4ra.
- 10:00-12:00 Erronka LH5etik DBH2ra.
- 11:00-14:00 Txutxu tren.
- 11:00-12:00 Gazte jolasak Artzabalen.
- 14:00 Gazte-bazkaria txosnetan. Bingo musikatua eta Aztarricup-eko sari banaketa.
- 14:30 Umeen bazkaria Artzabalen.
- 15:30-17:30 Gorkamendi Dj Artzabalen.
- 17:30 Txokolate-jatea Artzabalen.
- 15:30-17:30 Txutxu tren.
- 18:00 Zutik elektrotzaranga.
- 18:30 Erraldoi eta buruhandiak.
- 18:30 Herri-kirolak. Herriko bi talde lehiatzen.
- 23:00 Anje Duhalde frontoian.
- Jarraian, Perlata eta Skabidean txosnetan.

Uztailak 2, larunbata

- 09:00 Esnadeia txistulariekin.
- 12:00 Soka-dantza, udaletxe aurrean. Ondoren, lore eta salda banaketa.
- 12:00 Preso eta iheslarien eskubideen aldeko kalejira Matraka elektrotzarangarekin.
- 14:00 Zikiro-jana, Askatasuna plazan.
- 17:30 Sokamuturra Udarregin.
- 18:00 Tik Tara taldea txosnetan.

- 18:30 Erraldoi eta buruhandiak.
- 19:30 Laskotzaranga.
- 23:00 Odolaren Mintzoa, Skasti frontoian.
- Ondoren, Kristonak, Rukula eta Dj Kixo.

Uztailak 3, igandea

- 06:30 Elektrozefalogramo elektrotzaranga.
- 09:00 Gaupaseroen argazkia.
- 11:00-13:00 Toka-txapelketa eta Santixabel Igel Jokoa, Artzabalen.
- 11:00-13:00 Puzgarriak: ikastolan, udal-ete aurrean eta Askatasuna plazan.
- 12:30 Usurbilgo joaldunak.
- 14:00 Jubilatuen bazkaria Atxegan.
- 16:00 Mus txapelketa txosnetan (15:30-16:00 izen-ematea).
- 16:00-18:30 Puzgarriak: ikastolan, udal-ete aurrean eta Askatasuna plazan.
- 17:00 Esku-pilota txapelketako finalak.
- 18:00 Usurbilgo runba, bachata dantza taldearen emanaldi irekia Artzabalen.
- 18:30 Buruhandiak.
- 19:00 Paella jana txosnetan.
- 19:00 Puro Relajo taldea Artzabalen.
- 23:00 Amaiera emanaldia eta traka.
- 00:30 Silitia taldea txosnetan. Ondoren, karaoke mozorrotua txosnetan.

Otar-Goxo
Elkagaiak

*Gipuzkoako Egile Handiaren
1. Lehiaketako txapelduna*

HARATEGI-URDAITEGIA

Harategiko aukera Zabala: behi txuketa, txahal entrekota, txuleta kostilla eta abar, eta ez ahaztu gure prestatuak: **OSATU ZURE MENUAK! AUKERA ZABALA!** Zuentzat prestatutakoak!



ESKAERAK: telefonoz 943 36 55 81
677 64 27 76 edo email: otargoxo@gmail.com

AIZPURUA
OKINDEGIA

**OGIAK
GOZOGINTZA
TARTAK
ARDOAK**



Festetan zure mahaia ondo hornitu nahi baduzu, gurean baduzu aukera!

KALE NAGUSIA, 25 • 943 36 12 20

edaritegia
BORDATXO

Pintxo bereziak
Bokatak
Plater konbinatuak

*ondo pasa
Santixabeletan!!*

Zubiaurrenea, 5. © 943 37 10 42



**ONDO PASA
SANTIXABELETAN!**

*Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!*



Santuenea,
Telf: 943 36 50 31

SAGARDOTEGIA



·EGUNEKO MENUA: (astelehenetik ostiralera)
·EGUNEKO PLATERA · ASTEBURUKO MENUA · KARTA
· RAZIOAK · OGITARTEKOAK · PINTXOAK..

ATXEGA JATETXEKO LAN TALDEAREN PARTEZ...
Ondo pasa Santixabeletan!

TERRAZA ZERBITZUA ETA ETXERA ERAMATEKO ERE!!



Zumartegi poligonoa, USURBIL 943 371 150



**ITZIRA
BARRIKUOTZAK**

943 530 337
607 119 313



Ondo pasa festetan!

·gremioen koordinaketa ·berritze lanak
·sukaldeak ·komunak · mota guztietako obrak
·aurrekontua konpromisorik gabe

errekatziki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

AGUR IRRIBARRETSUA JAIEI



Bordatxo ondoko biribilgunean aterako dute gaupaseroen argazkia. Uztailaren 3an, goizeko 9:00etan.

Festen amaierako tristura alboratu eta hasi bezala goitik amaitzeko, 2019ko jaietako formula berreskuratu du gazte mugimenduak txosnetan, Santixabelak karaokearekin agurtzea. Mozorrotuta oraingoan. Uztailaren 3an egun osoz mozorrotua kale-

ratzeko deia egin dute, eta modu horretan parte hartzea mus txapelketan nahiz gero ospatuko den paella janean.

Paella jana txosnagunean

Paella-ontzia, sua, gatza eta olioia anto-

lakuntzak jarriko ditu partehartzaileen esku. Gainerako osagaiak bertan afaldu nahi duten koadrilek eraman beharko dituzte.

Otordu ezin egokiagoa, bezperako parandaren ostean.

Ondo pasa
Santixabeletan!



Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua Dermofarmazia
Produktu homeopatikokoak Maisu formulak



guria

guria

taberna

ONDO PASA JAIETAN!

PLATER KONBINATUAK,
HANBURGESAK,
ENTSALADAK, OGITARTEKOAK,
RAZIOAK...

PUNTAPAX 12, USURBIL 943 55 93 35



GRUPO MONROY

BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK



943 53 72 38

628 45 78 39 - 628 91 72 15

reformas@reformasmonroy.com
reformasmonroy.com

Berritze zerbitzu integralen bulegoa
Usurbilgo Kale Nagusiko 35.behean
Sektorean esperientzi zabala

KALE NAGUSIA 35, BEHEA, USURBIL

Jai parekideen alde, eraso sexistarik ez!

2022



SANTIXABELAK

USURBIL

EKAINAK | 29 | 30 | UZTAILAK | 1 | 2 | 3 |



Usurbilgo Udala

Antolatzailea: Santixabeletako Jai Batzordea